

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA

ESKALA: LABORATEGIA

1. PROBA/1. eta 2. ZATIAK

A EREDUA

Durango, 2012-01-28

1.etik 55. arteko galderak lehen probaren lehen zatiari dagozkio

1 **ESPAINIAKO KONSTITUZIOA: ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA**

- 1a) Gobernu-sistema parlamentarioa da.
- 1b) Espainiako estatuaren eredu politikoa Autonomien Estatuarena da.
- 1c) Konstituzioa da antolamenduaren arau funtsezkoa.
- 1d) Konstituzioak dioenez, nazioaren subiranotasuna Espainiako herrian datza.

2 **BABES-ERREKURTSOAREN BIDEZ BABESTEKO MODUKOAK DIRA...**

- 2a) 14-38. artikuluetan jasotzen diren eskubideak.
- 2b) Bakarrik 14-28. artikuluetan jasotzen diren eskubideak.
- 2c) Bakarrik 14-32. artikuluetan jasotzen diren eskubideak.
- 2d) 14-29. eta 30.2 artikuluetan jasotzen diren eskubideak.

3 **HERRI DEFENDATZAILEAK...**

- 3a) Bederatzi urteko agintaldia du.
- 3b) Ospe handiko legelarien artean aukeratu da.
- 3c) Immunitatea dauka.
- 3d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

4 **ESPAINIAKO KONSTITUZIOA TOKI-ADMINISTRAZIOA...**

- 4a) Udalerriek eta udalek eratu dute.
- 4b) Autonomia-erkidegoek, udalerriek eta probintziak eratu dute.
- 4c) Soil-soilik udalerriek, eskualdeek, metropoli-eremuek edo egon daitezkeen udalerrien mankomunitateek eratu dute.
- 4d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

5 **ESPAINIAKO KONSTITUZIOA:ZEINEK DAUKA TOKI-ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEKO ESKUMENA?**

- 5a) Udalerriek berek.
- 5b) Probintzia-diputazioek.
- 5c) Estatuak.
- 5d) Autonomia-erkidegoek.

6 **EZ ZEN IRITSI AUTONOMIARA 151. ARTIKULUAREN BIDEZ...**

- 6a) Nafarroako Autonomia Erkidegoa.
- 6b) Euskal Autonomia Erkidegoa.
- 6c) Galiziako Autonomia Erkidegoa.
- 6d) Andaluziako Autonomia Erkidegoa.

7 EUSKADIREN LEHENENGO AUTONOMIA-ESTATUTUA...

- 7a) 1936koa da.
- 7b) 1933koa da.
- 7c) 1979koa da.
- 7d) 1981ekoa da.

8 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AUTONOMIA-ESTATUTUAN, EUSKAL HERRIAREN AGINTEAK, ZEIN TITULUTAN DAUDE JASOTA?

- 8a) Atariko tituluan.
- 8b) I. tituluan.
- 8c) II. tituluan.
- 8d) III. tituluan.

9 LURRALDE HISTORIKOEN LEGEA (LHL)...

- 9a) Gasteizko Legebiltzarrak onartu zuen.
- 9b) Gorte Nagusiek onartu zuten.
- 9c) Batzar nagusietako bakoitzak onartu zuen.
- 9d) 1978ko Konstituzioaren aurrekoa da.

10 EAE-KO BERDINTASUNERAKO LEGEAK 8. ARTIKULUAN JASOTZEN DITUEN PRINTZIBIO OROKORREN ARTEAN...

- 10a) Berdintasunezko lankidetzat dago.
- 10b) Alderantzizko bereizkeria dago.
- 10c) Dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea dago.
- 10d) Aurrekoetatik bat ere ez dago.

11 EAE-KO BERDINTASUNERAKO LEGEAN ORDEZKARITZA OREKATUA AIPATZEN DENEAN...

- 11a) Sexu biek ordezkari berdinak izan behar dutela esan nahi da, 50-50.
- 11b) Sexu biek gutxienez ehuneko 40ko ordezkari izan behar dutela esan nahi da.
- 11c) Sexu biek gutxienez ehuneko 50eko ordezkari izan behar dutela esan nahi da.
- 11d) Ez du aipatzen inolako ehuneko berezirik, eta kasuz kasu joatea eskatzen du.

12 HERRITARREK BEREN ADMINISTRAZIO-IZAPIDEAK EGITEKO BITARTEKO ELEKTRONIKOAK ERABILTZeko DUTEN ESKUBIDEA

- 12a) Lehenengo aldiz Konstituzioan bertan aitortu zen.
- 12b) Lehenengo aldiz Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aitortu zen.
- 12c) Lehenengo aldiz Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko Legean aitortu zen.
- 12d) Ez zen aitortu lehenengo aldiz aipatutako arau horietatik ezeinetan.

13 ADMINISTRAZIOAK, BALIABIDE ELEKTRONIKOAK EZARTZEN BADITU HERRITARREKIN DITUEN HARREMANETAN, ZIURTATU EGIN BEHAR DU ERABILTZAILEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN EKIPO INFORMATIKOEKIN BATERAGARRIAK IZANGO DIRELA BALIABIDE HORIEK...

- 13a) Hori aplikagarri den legerian aitortzen den herritarren bermeak oso-osorik gordetzearen printzipioaren ondorio da.
- 13b) Hori aplikagarri den legerian aitortzen den baliabide elektronikoz informazioa eta zerbitzuak eskuratu ahal izateko printzipioaren ondorio da.
- 13c) Hori aplikagarri den legerian aitortzen modernizazio eta garapen jarraituko printzipioaren ondorio da.
- 13d) Hori indarrean dagoen legerian aitortzen den neutraltasun teknologikoaren printzipioaren ondorio da.

14 ZUZENBIDEAREN ITURRIAK: ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA

- 14a) Lege guztiek ez dute indar berdina.
- 14b) Lege guztiek ez dute maila berdina.
- 14c) Lege organikoaren eta lege arruntaren arteko harremana hierarkiaren printzipioaren arabera egituratzen da.
- 14d) Legea ez da antolamendu juridikoan legitimitate demokratiko zuzenekoa duen arau bakarra.

15 ZUZENBIDEAREN ITURRIAK: ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA

- 15a) Legeak hierarkikoki berdinak dira elkarren artean.
- 15b) Betearazteko erregelamenduek administrazio-jardunerako beharrezko diren tresnak arautzen dituzte.
- 15c) Konstituzio Auzitegiak bere gain hartuko du lege-dekretuen jurisdikzio-kontrola.
- 15d) Administrazioak ezin du kasu jakin bat erregelamenduaren aplikaziotik salbuetsi.

16 ESKUMENA: TEKNIKA SOIL-SOILIK ETXEKOA DA...

- 16a) Izenpea eskuordetzea.
- 16b) Abokazioa.
- 16c) Kudeatzeko gomendioa.
- 16d) Eskumenak eskuordetzan ematea.

17 ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANAK PRINTZPIO HONEN ESKAKIZUNEN MENDE GERATUK DIRA:

- 17a) Administrazio-neutraltasunaren printzipioa.
- 17b) Independentzia-printzipioa.
- 17c) Erakundeen arteko leialtasunaren printzipioa.
- 17d) Eskumen-printzipioa.

18 ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEA ARAUTZEA, KONSTITUZIOAREN 149.1.18 ARTIKULUAREN ARABERA

- 18a) Autonomia-erkidegoen eskumen eksklusiboa da.
- 18b) Estatuaren eta autonomia-erkidegoen eskumen partekatua da.
- 18c) Estatuaren eskumen eksklusiboa da.
- 18d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

19 30/1992 LEGEA, HERRI-ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOARENA ETA ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA: ZUZENBIDE PUBLIKOKO ERAKUNDEEI...

- 19a) Egoki irizten dietenean baino ez zaie aplikatuko lege hori.
- 19b) Administrazio-ahalak betetzen dituztenean baino ez zaie aplikatuko lege hori.
- 19c) Antolamenduari eta funtzionamenduari dagokionez baino ez zaie aplikatuko lege hori.
- 19d) Inoiz ez zaie aplikatuko lege hori.

20 ERREGISTROKO JARDUERAK...

- 20a) Bi eginkizun ditu: harrera eta lekualdaketa.
- 20b) Bi eginkizun ditu: onarpena eta lekualdaketa.
- 20c) Bi eginkizun ditu: harrera eta idazpena.
- 20d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

21 ADMINISTRAZIO-EGINTZA: ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA

- 21a) Administrazio-egintza guztiek hartzailearen onarpena eskatzen dute erabat eraginkorrak izateko.
- 21b) Administrazio-egintza bat alde bakarreko adierazpena da.
- 21c) Administrazio-egintza guztiek dituzte ondorio juridikoak.
- 21d) Administrazio-egintza guztiak Administrazio Zuzenbideari lotuta daude.

22 INTERESDUN JAKIN ETA ZEHATZ BATZUEI ZUZENTZEN ZAIEN ADMINISTRAZIO-EGINTZA...

- 22a) Egintza plural deitzen da.
- 22b) Egintza banakako deitzen da.
- 22c) Egintza singular deitzen da.
- 22d) Egintza orokor deitzen da.

23 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA...

- 23a) Administrazioaren jakinarazpenak beti posta-gutunez egin behar dira.
- 23b) Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, jakinarazpena beti haren helbidean egingo da.
- 23c) Jakinarazpenak ez du beti eskatzen ebazpenaren testu osoa txertatzea.
- 23d) Herri-administrazioak herritarren bidezko interesei eragiten dieten izapide-egintzak ere jakinarazi egin behar ditu.

24 ADMINISTRAZIO-PROZEDURA.

- 24a) Lau fasetan egituratzen da: informazioa, hasiera, instrukzioa eta ebazpena.
- 24b) Hiru fasetan egituratzen da: informazioa, instrukzioa eta amaiera.
- 24c) Lau fasetan egituratzen da: informazioa, instrukzioa, ebazpena eta betearazpena.
- 24d) Hiru fasetan egituratzen da: hasiera, instrukzioa eta amaiera.

25 ADMINISTRAZIOAK EZIN DU INOIZ DEKLARATU EZ UKO-EGITERIK EZ ATZERA-EGITERIK...

- 25a) Ekintza iraungi izanagatik.
- 25b) Prozeduran aztertutako gaia interes orokorreko gaitzat jotzen bada.
- 25c) Prozeduran aztertutako gaia interes bereziko gaitzat jotzen bada.
- 25d) Inoiz ezin du administrazioak deklaratu uko-egiterik edo atzera-egiterik.

26 ZER ESAN NAHI DU ADMINISTRAZIOAN AURKA EGITEKO EPEEK IZAERA PREKLUSIBOA DUTELA?

- 26a) Behar den bezala luzatu daitezkeela, bai eragindakoaren eskariz, bai Administrazioaren eskariz.
- 26b) Behar den bezala luzatu daitezkeela, eragindakoaren eskariz.
- 26c) Ezin daitezkeela luzatu.
- 26d) Oso laburrak direla.

27 BERRIKUSTEKO ERREKURTSO BEREZIA...

- 27a) Egintza eman zuen organoari aurkezten zaio.
- 27b) Hiru hilabeteko epean aurkezten da, errekurritu beharreko egintza presuntzioskoa bada.
- 27c) Bost hilabeteko epean aurkezten da, errekurritu beharreko egintza presuntzioskoa bada.
- 27d) Nahitaezko izaera du.

28 ADMINISTRAZIOAREN ONDARE-ERANTZUKIZUNAREN AUZIA, ZENBAT ELEMENTUTAN BANATZEN DA?

- 28a) Bi elementutan: kaltea antijuridikoa izatea eta kaltea herritarrari egozte.
- 28b) Bi elementutan: administrazio-jarduera bat egotea, eta kaltea herritarrari egozte.
- 28c) Hiru elementutan: administrazio-jarduera bat egotea, kaltea antijuridikoa izatea eta kaltea Administrazioari egozte.
- 28d) Aurrekoetatik bat ere ez da zuzena.

29 ADMINISTRAZIOAREN ONDAREZKO ERANTZUKIZUNA: ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA

- 29a) Partikularrari kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ematen dion kalteak haren edozein ondasun eta eskubidetan izan dezake eragina.
- 29b) Partikularrari kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ematen dion kalteak kalte moralak ordaindu behar ditu.
- 29c) Partikularrari kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ematen dion kalteak eragindako kalte guztia ordaindu behar du.
- 29d) Kalte-ordainak dirutan ordaindu beharrean ez daitezke inoiz gauzatan ordaindu; herri-administrazioak ezin du hori egin.

30 15/1999 LEGE ORGANIKOAK, IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEARI BURUZKOAK (DBLO):

- 30a) Hiru mota bereizten ditu datu babestuetan: ideologia, sindikatu-afiliazioa erakusten dituztenak; erlijioa eta sinesmenak erakusten dituztenak, eta arraza, osasuna eta sexu-bizitza erakusten dituztenak.
- 30b) Hiru mota bereizten ditu datu babestuetan: sindikatu-afiliazioa erakusten dutenak; ideologia, erlijioa eta sinesmenak erakusten dituztenak, eta arraza, osasuna eta sexu-bizitza erakusten dituztenak.
- 30c) Hiru mota bereizten ditu datu babestuetan: ideologia, sindikatu-afiliazioa, erlijioa eta sinesmenak erakusten dituztenak; osasuna erakusten dutenak, eta arraza eta sexu-bizitza erakusten dituztenak.
- 30d) Bi mota bereizten ditu datu babestuetan: ideologia, sindikatu-afiliazioa, erlijioa eta sinesmenak erakusten dituztenak, eta arraza, osasuna eta sexu-bizitza aipatzen dituztenak.

31 DBLO: DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA EZ EGITEKO ESKUBIDEARI, NOLA DEITZEN ZAIO?

- 31a) Modu teknikoan, datuak ezerezteko eskubidea deitzen zaio.
- 31b) Modu formalean, datuak zuzentzeko eskubidea deitzen zaio.
- 31c) Modu formalean, datuen aurka egiteko eskubidea deitzen zaio.
- 31d) Modu formalean, datuetan sartzeko eskubidea deitzen zaio.

32 EGIA DA EAE-KO ADMINISTRAZIOAN...

- 32a) Lan-kontratu finkoko langileak egon daitezkeela.
- 32b) Lan-kontratuko langile funtzionarioak egon daitezkeela.
- 32c) Behin-behineko langile funtzionarioak egon daitezkeela.
- 32d) Estatutu-harreman administratiboa duten zuzendaritzako langile profesionalak egon daitezkeela.

33 KARRERAKO FUNTZIONARIOARI DAGOKION MUGIEZINTASUN-ESKUBIDEA...

- 33a) Berriazko ez den oinarrizko eskubide bat da, pertsona orori aitortzen zaiona.
- 33b) Lanpostuari dagokion eskubide bat da.
- 33c) Laneko baldintzei dagokien eskubide bat da.
- 33d) Gizarte-segurantzako eskubide bat da.

34 EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREAN...

- 34a) Lau hizkuntza-eskakizun dauzkagu.
- 34b) Hiru hizkuntza-eskakizun dauzkagu.
- 34c) Bi hizkuntza-eskakizun dauzkagu.
- 34d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

35 ADMINISTRAZIOAREKIN HARREMANA DUENARI...

- 35a) Administratu deitzen zaio.
- 35b) Herritar deitzen zaio.
- 35c) Interesdun deitzen zaio.
- 35d) Bezero deitzen zaio.

36 ADMINISTRAZIOAREKIN HARREMAN JURIDIKOA DUENARI...

- 36a) Administratu deitzen zaio.
- 36b) Herritar deitzen zaio.
- 36c) Interesdun deitzen zaio.
- 36d) Bezero deitzen zaio.

37 ALEGAZIOAK...

- 37a) Herri-administrazioek herritarrekin komunikatzeko sortzen dituzten dokumentuak dira.
- 37b) Herri-administrazioek administrazioaren barruan komunikatzeko sortzen dituzten dokumentuak dira.
- 37c) Herri-administrazioek beste administrazio eta erakunde publiko batzuekin komunikatzeko sortzen dituzten dokumentuak dira.
- 37d) Herritarrek herri-administrazioari zuzentzeko sortzen dituzten dokumentuak dira.

38 AKORDIOAK...

- 38a) Herri-administrazioek herritarrekin komunikatzeko sortzen dituzten dokumentuak dira.
- 38b) Herri-administrazioek administrazioaren barruan komunikatzeko sortzen dituzten dokumentuak dira.
- 38c) Herri-administrazioek beste administrazio eta erakunde publiko batzuekin komunikatzeko sortzen dituzten dokumentuak dira.
- 38d) Herritarrek herri-administrazioari zuzentzeko sortzen dituzten dokumentuak dira.

39 DOKUMENTU IREKIAK...

- 39a) Egitura estandar erabat zehaztua daukaten dokumentuak dira.
- 39b) Sinadura pertsonalik ez dutenak dira.
- 39c) Publikoak diren dokumentuak dira.
- 39d) Eredu jakin baten arabekoak ez direnak dira.

40 IRAGARKI BAT, ORO HAR...

- 40a) Dokumentu mota jakin bat da, eta bere helburu nagusia arautzea izango litzateke.
- 40b) Dokumentu mota jakin bat da, eta bere helburu nagusia ziurtatzea izango litzateke.
- 40c) Dokumentu mota jakin bat da, eta bere helburu nagusia eskatzea izango litzateke.
- 40d) Dokumentu mota jakin bat da, eta bere helburu nagusia informatzea izango litzateke.

41 LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA: PREBENTZIO-EKINTZAREN PRINTZIBIOEN ARTEAN EZ DUGU AURKITZEN...

- 41a) Eboluzio teknikoa saihestea.
- 41b) Neurri egokiak hartzea, arrisku bereziko eremuetara informazio nahikoa eta egokia jaso duten langileak soilik sartzeari bermatzeko.
- 41c) Prebentzioa planifikatzea.
- 41d) Arriskua duten gauzen ordez arrisku gutxikoak sartzeari.

42 LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA: ADMINISTRAZIOAK DAGOZKION BETEBEHARRAK BETETZEN DITUELA ADIERAZTEN DUTEN ZENBAIT DOKUMENTU EGIN BEHAR DITU; DOKUMENTU HORIEN ARTEAN DAUDE...

- 42a) Egindako lan-arriskuen ebaluazioak.
- 42b) Beharizan bereziak dituzten langileen zerrenda.
- 42c) Beharizan bereziak dituzten jardueren zerrenda.
- 42d) Aurrekoetatik batek ere ez.

43 LANKIDE BATEK EZ BADU ARNASTEN ETA KONORTERIK GABE BADAGO, OSO ZURBIL, ETA ESKUMUTURREAN ETA LEPOAN PULTSURIK EZ BADU ETA BEGINIAK DILATATUTA BADITU ETA BIHOTZ-TAUPADARIK EZ BAZAIO ENTZUTEN...

- 43a) Oso litekeena da lankidearen bihotza gelditu izana; hori dela eta, lehenik eta behin, haren ondoan jarriko gara, belauniko.
- 43b) Oso litekeena da lankidearen bihotza gelditu izana; hori dela eta, lehenik eta behin, bizkortze-posizioan jarriko dugu biktima.
- 43c) Oso litekeena da lankidea hiltzear egotea; hori dela eta, ez da ezer egin behar, zorigaitzoko amaiera itxaron izan ezik.
- 43d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

44 ADMINISTRAZIO-EGINTZA: KARGAK EZARTZEN DITUZTEN EGINTZAK DIRA...

- 44a) Baimenak.
- 44b) Aginduak.
- 44c) Diru-laguntzak.
- 44d) Salbuespenak.

45 PROZEDURAREN HASIERA: ADMINISTRAZIOAK EPE BAT EMANGO DIO INTERESDUNARI BERE ESKABIDEAK DUEN AKATSA ZUZEN DEZAN; ZENBATEKOA IZANGO DA?

- 45a) Epea hilabetekoa izango da.
- 45b) Epea hogeita hamar egunekoa izango da.
- 45c) Epea hamar egunekoa izango da.
- 45d) Jakinarazpenean berean zehazten den epe aldakor bat.

46 ADMINISTRAZIO-EGINTZAK BERRIKUSTEA: EGINTZA KALTEGARRITZAT JOTZEKO ESPEDIENTEA EBAZTEA...

- 46a) Prozedura hasi baino hiru hilabete lehenago ebatzi behar da.
- 46d) Prozedura hasi baino lau hilabete lehenago ebatzi behar da.
- 46c) Prozedura hasi baino hilabete lehenago ebatzi behar da.
- 46d) Prozedura hasi baino sei hilabete lehenago ebatzi behar da.

47 ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ONDARE-ERANTZUKIZUNEKO PROZEDURAK

- 47a) Interesdunen eskariz baino ez dira hasiko.
- 47b) Administrazioaren eskariz baino ez dira hasiko.
- 47c) Administrazioak bere kabuz erabakita edo interesdunen eskariz hasiko dira.
- 47d) Interesdunen zein bidezko interesak dituztenen eskariz hasiko dira, biek ala biek eskatuta.

48 ZEIN DA LANEKO AGENTE KIMIKOEI LOTUTAKO ARRISKUEN AURREAN LANGILEEN OSASUNA ETA SEGURTASUNA BABESTEARI BURUZKO ARAUA?

- 48a) Apirilaren 6ko 374/2001 Legea.
- 48b) Apirilaren 6ko 374/2001 Estatutua.
- 48c) Apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretua.
- 48d) Apirilaren 6ko 374/2001 Erregelamendua.

49 ADIERAZI BAI EZTAPEN HAUETATIK ZEIN EZ DEN ZUZENA:

- 49a) R esaldiak substantzia edo prestakin arriskutsu baten arriskuak deskribatzeko erabiltzen diren esaldien eta esaldi-konbinazioen multzo zenbakitua da.
- 49b) S esaldiak prestakin arriskutsu baten arriskuak deskribatzeko erabiltzen diren esaldi-konbinazioen multzo zenbakitua dira.
- 49c) S esaldiek produktu kimiko jakin batekin lan egiteko aholkuak ematen dituzte.
- 49d) R esaldiak arrisku jakin bati buruz ohartarazteko erabil daitezke.

50 ZEIN DA LEKU ITXIETAN EGINGO DIREN LANETAN IZAN DAITEZKEEN ARRISKUEI BURUZKO ETA HARTU BEHARREKO PREBENTZIO-NEURRIAK JASOTZEN DITUEN DOKUMENTUA?

- 50a) Osasun Ministerioaren 223 NTP deiturikoa da.
- 50b) Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren 123 NTP deiturikoa da.
- 50c) Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren 223 NTP deiturikoa da.
- 50d) Ez da aurreko dokumentuetako bat ere.

ORDEZKO GALDERAK

51 AUTONOMIARA 151. ARTIKULUAREN BIDEZ IRITSI ZEN...

- 51a) Nafarroako Autonomia Erkidegoa.
- 51b) Kanarietako Erkidegoa.
- 51c) Kataluniako Erkidegoa.
- 51d) Errioxako Erkidegoa.

52 NOLA DEITZEN DA ENPLEGU PUBLIKOKO HARREMAN GUZTIEI APLIKATU BEHARREKO PRINTZPIO OROKORRAK EZARTZEN DITUEN ETA HERRI-ADMINISTRAZIO GUZTITAKO LANGILE FUNTZIONARIO GUZTIENTZAKO ARAUAK GEHI HERRI-ADMINISTRAZIOEN ZERBITZUPEKO LAN-KONTRATUKO LANGILEENTZAKO LEGE-ARAU ESPEZIFIKOAK JASOTZEN DITUEN ARAU-TRESNA?

- 52a) Langileen Estatutua.
- 52b) Euskal Funtzio Publikoaren Legea.
- 52c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua.
- 52d) Aurrekoetatik batek ere ez.

53 NOIZ AMAITUKO DA EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN APLIKAZIO-EREMUA?

- 53a) III. plangintzaldia bukatzen den egun berean.
- 53b) IV. plangintzaldia bukatzen den egun berean.
- 53c) II. plangintzaldia bukatzen den egun berean.
- 53d) VI. plangintzaldia bukatzen den egun berean.

54 ESPAINIAKO KONSTITUZIOAK EZ DU BERARIAZ DEBEKATZEN LEGE-DEKRETUEK HONAKO HAUEKIN ZERIKUSIA DÜTEN GAIK ERREGULATZEA:

- 54a) Ingurumena.
- 54b) Oinarritzko eskubideak.
- 54c) Autonomia-erkidegoen araubidea.
- 54d) Estatuaren oinarritzko erakundeen antolamendua.

55 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN, LURRALDE HISTORIKOEK, ANTOLAKETA GAIETAN, BEREN ARAUK DITUZTE; ZERK ERATZEN DITUZTE ARAU HORIEK?

- 55a) Toki Araubidearen Oinarrien Legeak.
- 55b) Erakunde-antolaketari buruzko foru-arauek.
- 55c) Euskal Herriko Autonomia Estatutuak.
- 55d) Lurralde Historikoen Legeak.

LEHEN PROBAREN LEHEN ZATIAREN BUKAERA

101.etik 210. arteko galderak lehen probaren bigarren zatiari dagozkie

101 AZIDO SULFURIKOKO URETAKO DISOLUZIO BATERAKO, EGIASKOA DA:

- 101a) Normaltasuna molartasunaren berdina dela.
- 101b) Molartasuna eta molaltasuna berdinak direla.
- 101c) Normaltasuna molartasunaren bikoitza dela.
- 101d) Molartasuna frakzio molarraren berdina dela.

102 ANALISI BATEAN 0,536748 mg/l EMAITZA LORTZEN DUGU. PROZEDURAK ERAKUSTEN DU 3 ZIFRA ADIERAZGARRIREN BIDEZ ADIERAZI BEHAR DUGULA. HAU DA ADIERAZPEN EGOKIA:

- 102a) 0,536748 mg/l.
- 102b) 5.37×10^{-1} mg/l.
- 102c) 0,54 mg/l.
- 102d) 5.4×10^{-2} mg/l.

103 ANALISTA BATEK DENBORALDI LABUR BATEAN LAGIN BATEN SEGIDAKO ANALISI BATZUK EGITEN DITUENEAN, LABORATEGI BEREAN ETA METODO, ERREAKTIBO ETA EKIPAMENDU BEREN BITARTEZ, ESAN DAITEKE HONAKO BALDINTZA HAUETAN LAN EGITEN ARI DELA:

- 103a) Errepikagarritasuna.
- 103b) Erreproduzigarritasuna.
- 103c) Selektibitatea.
- 103d) Bitarteko doitasuna.

104 UNE-ISO 17025:2005 ARAUAREN ARABERA, ANALISTA BATEK AKATS BAT EGITEN DUENEAN ENTSEGU BATEN EMAITZA ERREGISTRATZERAKOAN:

- 104a) Erregistro akastuna ezabatua izan behar da, eta haren orde, emaitza zuzena idatzi behar da, eta gertakari hori arduradun teknikoari jakinarazi behar zaio, gainbegira dezan.
- 104b) Gertakari hori arduradun teknikoari jakinaraziko zaio, eta hark egoera gainbegiratuko du eta emaitza idatziz jasoko du, eta izenpetu.
- 104c) Gertakari hori kalitate-arduradunari jakinarazi behar zaio, eta hark, egoki baderitzo, zuzenketa baimenduko du.
- 104d) Erregistro akastuna zirrimarratua izan behar da, irakurgarritasuna ahalbidetuz; emaitza zuzena idatziko da, eta zuzenketa egin duenak izenpetuko edo ikus-onetsiko du.

105 ENTSEGUKO PROZEDURA BATEAN, A KLASEKO 25 ml-KO MATRAZE AFORATU BAT ERABILI BEHAR DA. HORRI DAGOKIONEZ, HAU BAIEZTA DEZAKEGU:

- 105a) Matrazea kalibratzea ez da beharrezkoa, UNE-ISO 17025 arauari jarraituz fabrikatua izan bada eta fabrikatzailearen klase-ziurtapena badauka.
- 105b) Kalibrazio grabimetrikoa beharrezkoa balitz, horretarako erabili den uraren temperatura jakin beharko genuke.
- 105c) A klaseko aitortpenak doitasuneko errore maximoari buruzko informazioa ematen digu.
- 105d) Kalitate txikiagoko matrazeak erabiltzeak ausazko errorean igoera eragingo du.

106 BALANTZEN KALIBRAKETAN, HONAKO ALDERDI HAUEK EBALUATZEKO PROBA BATZUK EGIN BEHAR DIRA:

- 106a) Deszentramendua eta errepikagarritasuna.
- 106b) Sentikortasuna eta erantzun-faktorea.
- 106c) Espezifikotasuna eta selektibitatea.
- 106d) Homogeneotasuna eta hautemate-muga.

107 MINIMO KARRATUEN BIDEZ KALIBRATUTAKO ZUZEN BAT ERABILTZEN DENEAN, AURESATEAREN ZIURGABETASUN MINIMOA NEURTUTAKO SEINALE ANALITIKOA HONETATIK HURBIL DAGOENEAN LORTZEN DA:

- 107a) Hautemate-muga.
- 107b) Kalibratze-zuzenaren goiko puntua.
- 107c) Kalibratze-zuzenaren beheko puntua.
- 107d) Kalibratze-zuzenaren erdigunea.

108 LABORATEGIKO TRESNEN KONTROLARI ETA KALIBRATZEARI DAGOKIENEZ, GEZURREZKOA DA:

- 108a) Mikrobiologian erabiltzen diren inkubagailuetan aldizkako homogeneotasun-egonkortasun azterketak egin behar direla.
- 108b) UV-Vis espektrofotometroak aldiari behin begiztatu behar direla, holmiozko eta poliestirenozko iragazkiekin.
- 108c) Balantzak barnealdetik kalibratu daitezke, ISO 17025 pean egiaztatutako kalibrazio-laborategi batek kalibratutako masekin.
- 108d) Tresna kalibratuek etiketa bat eduki behar dute, eta etiketa horrek azken kalibrazioaren data eta hurrengoa zein datatan egin behar den adieraziko ditu.

109 UNE-ISO 17025:2005 PEAN EGIAZTATUTAKO SAIKUNTZA-LABORATEGI BATEK:

- 109a) Aitortuta dauka beraren eskumenean zehaztuta dauzkan saiakuntzak gauzatzeko gaitasun teknikoa.
- 109b) Gaitua dago laborategien eremuko kalitate-kudeaketako sistemei buruzko ziurtapenak emateko.
- 109c) Metodo arauak erabili behar ditu, nazioartean adostuak eta Ziurtapeneko Erakunde Nazionalak (ENAC) onartuak.
- 109d) Gaitua dago interkonparazioko ariketak antolatzeke eta ariketa horietan parte hartzeke.

110 UNE-ISO 17025:2005 ARAUAREN ARABERA, ANALISI EDO BARNE-KALIBRAZIO BATEN KALKULUETAN ERABILTZEN DEN KALKULU-ORRI BAT, ZER DA?

- 110a) Dokumentu bat, eta onartu eta banatu aurretik orri horren ziurgabetasuna zenbatetsi behar da.
- 110b) Erregistro bat, eta kalitate-arduradunak onartua izan behar da.
- 110c) Dokumentu bat, eta balidatua eta onartua izan behar da.
- 110d) Erregistro bat, eta bere erabilera gainbegiratu eta onartua izan behar da.

111 MIKROBIOLOGIAN, KONTROL-KARTAK EZARTZEKO ETA EBALUATZEKO, BARNE-KALITATEKO KONTROLAREN BARRUAN:

- 111a) Emaitzetarako onarpen-irizpideak G-ENAC-04 gidak (analisi mikrobiologikoetarako laborategiak egiaztatzeke gidak) finkatzen dituenak izango dira.
- 111b) Ohartarazpen- eta ekintza-mugak analisi errepikatuaren xede den erreferentziako materialaren ziurtagiriak zehaztuko ditu.
- 111c) Z-score maila onargarria definitu behar dugu, eta lortzen diren emaitzak onartzeko edo arbuizatzeko irizpide gisa balioko du.
- 111d) Kontrolerako material/lagin bat eduki behar dugu, homogeneoa eta egonkorra dena.

112 EMANIK KALIBRAZIO-ZUZENEKO METODO ANALITIKO BAT (S SEINALEA VERSUS X KONTZENTRAZIOA):

$$S = AX + B$$

METODOAREN KALIBRAZIO-SENTIKORTASUNA HONAKO HONEK EMATEN DU:

- 112a) A/B.
- 112b) A.
- 112c) B.
- 112d) B/S.

113 UNE-EN ISO 7218:2007 ARAUAREN ARABERA, BEIRAZKO MATERIALAREN ESTERILIZAZIO ERAGINKORRA HONAKO HAUEN BIDEZ GAUZATU DAITEKE:

- 113a) Autboklabea 121° C-tan, gutxienez 15 minutuan.
- 113b) Autboklabea 115° C-tan, gutxienez 10 minutuan.
- 113c) Esterilizazio-labea 121° C-tan, gutxienez 80 minutuan.
- 113d) Esterilizazio-labea 160° C-tan, gutxienez 45 minutuan.

114 UNE-EN ISO 7218:2007 ETA UNE-CEN ISO/TS 11133-1:2009 ARAUEN ARABERA, MIKROBIOLOGIARAKO HAZKUNTZA-INGURUNE ETA ERREAKTIBOEN PRESTAKETAN ERABILTZEN DEN URA/K:

- 114a) Karbono organiko totalaren maila 2.0 mg/l-tik beherakoa izan behar du.
- 114b) Alderantzizko osmosirik tresna batetik etorri behar du.
- 114c) Esterila izan behar da, eta ur horren esterilitatea biltegitratzean ere bermatu behar da.
- 114d) Kantitate honetatik beherako edo kantitate honetako eroankortasuna izango du: 25 μ S/cm 25°C-tan.

115 MOHR-EN GATZAREN $[(\text{Fe}(\text{NH}_4)_2](\text{SO}_4)_2 \cdot 6\text{H}_2\text{O}$ 0.1 DISOLUZIO BATEN 20 ml-KO TITULAZIOA INGURU AZIDOAN BURUTZEN DA, POTAZIO-PERMANGANATOZKO 0.1 M SOLUZIO BALORATU BATEKIN. AMAIPUNTUAN KONTSUMITUTAKO BOLUMENA, HAU IZANGO DA:

- 115a) 4 ml.
- 115b) 2 ml.
- 115c) 20 ml.
- 115d) 100 ml.

116 ADIERAZ EZAZU, HONAKO BAI EZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DEN EGIAZKOA, ELIKAGAIETAN SULFITOAK DETERMINATZEKO OPTIMIZATUTAKO MONIER WILLIAMS-REN TEKNIKARI BURUZ (UNE-EN-1988-1:2000)

- 116a) Kuantifikazioa redox bolumetria baten bidez egiten da, eta hor hidrogeno-peroxidoak erreduzitzaile moduan jarduten du.
- 116b) Elikagaien dauden sulfitoak sulfuro-dioxido bihurtzen dira azido nitrikozko disoluzio antioxidatzea duen errefluxuko berotzearen bidez.
- 116c) Elikagaien dauden sulfitoen edukia zuzenki proportzionala da sortutako azido sulfurikoko aldean.
- 116d) Erabilitako hidrogeno-peroxidoaren bolumena proportzionala da elikagaiaren sulfito-edukiarekiko.

117 DISOLUZIO BATEN pH-a NEURTZEN DUGU, BEIRAZKO ELEKTRODO BAT ERABILIZ, ETA EMAITZA HAU EMATEN DIGU: pH=5,00. BASE BAT ERANSTEN DIOGU pH=9,00RAINO. ZEIN IZANGO DA GUTXI GORABEHERA BI NEURRIEN ARTEKO POTENZIAL-DIFERENTZIA, BALIO ABSOLUTUTAN?

- 117a) 59 mV.
- 117b) 237 mV.
- 117c) 400 mV.
- 117d) 177 mV.

118 IZAN BIDEZ BI METODO ESPEKTROFOTOMETRIKO, A ETA B. LAMBERT BEER-REN LEGEA BETETZEN DUTE ETA ARGI-LEIHO BERAREKIN ANALITO BERARI APLIKATZEN ZAIZKIO. A-REN IRAUNGITZE-KOEFIZIENTEA B-RENA BAINO HANDIAGOA BADA:

- 118a) Absorbantzia B metodoan baino handiagoa izango da An.
- 118b) Transmittantzia B metodoan baino handiagoa izango da An.
- 118c) A metodoarena baino handiagoa izango da Bren absorbitate molarra.
- 118d) Absortzio-maximoaren uhin-luzera A metodoan baino handiagoa da B metodoan.

119 HIDRUROAK SORTZEAREN BIDEZKO ABSORTZIO ATOMIKOAREN TEKNIKA HONAKO ELEMENTU HAUEN DETERMINAZIOAN APLIKA DAITEKE:

- 119a) Boroa eta silizioa.
- 119b) Kobaltoa eta nikela.
- 119c) Beruna eta kadmioa.
- 119d) Arsenikoa eta antimonioa.

120 GRAFITOZKO BERUNAREN BIDEZKO ABSORTZIO ATOMIKOKO ESPEKTROSKOPIAN, MATRITZE-MODIFIKATZAILEAK, ZERTARAKO ERABILTZEN DIRA ESQUARKI?

- 120a) Laneko uhin-luzera jaisteko.
- 120b) Laginaren bolumena igotzeko, horrela hautemate-muga hobea lortuta.
- 120c) Analitoari egonkortasun termikoa eskaintzeko, galerak saihesteko asmoz.
- 120d) Absortzio ez-espezifikoa eragindako interferentzia espektralak murrizteko.

121 GAS-KROMATOGRAFIAN, BARNE-ESTANDARRAREN TEKNIKA ERABILTZEAK HAU AHALBIDETZEN DU:

- 121a) Intereseko analitoen atxikitze-denbora murriztea.
- 121b) Doitasuna igotzea eta injekzioak eragindako ziurgabetasuna murriztea.
- 121c) Matrize efektua ezabatzea eta bereizmena hobetzea.
- 121d) Zarata murriztea eta sentikortasuna igotzea.

122 ALKOHOLEMIA-DETERMINAZIO BAT BURUTZEN DUGU GAS-KROMATOGRAFIAREN BITARTEZ, FID DETEKTAGAILUA ETA BURU-ESPAZIOKO INJEKZIOA ERABILITA. ZER EGIN BEHARKO DUGU ETANOLAREN ATXIKITZE-DENBORA MURRIZTEKO?

- 122a) Gas eramailearen fluxua murriztu.
- 122b) Injektorearen tenperatura igo.
- 122c) Detektagailuaren tenperatura murriztu.
- 122d) Labeko tenperatura igo.

123 HPLC-KO ELUZIO ISOKRATIKOAN KONSTANTE IRAUTEN DU HONAKO ELEMENTU HONEK:

- 123a) Analitoaren kontzentrazioak.
- 123b) Tenperaturak.
- 123c) Fase mugikorraren konposizioak.
- 123d) Laginaren bolumenak.

124 GAS-KROMATOGRAFIAN ERABILTZEN DEN ELEKTROI-HARRAPAKETAKO DETEKTAGAILUAK HONAKO HAUEI ERANTZUTEN DIE:

- 124a) Espezie elektrofilikoei, hala nola halogenoak dauzkaten konposatu organikoei.
- 124b) Izaera nukleofilikoko era guztietako konposatu organiko eta ez-organikoei.
- 124c) Soil-soilik nitrogeno-atomoak dituzten konposatu organikoei.
- 124d) Bakarrik nitrogenoa edo fosforoa daukaten konposatuei.

125 GVPC (BUFFERED CHARCOAL YEAST EXTRACT-KETOGLUTARATE) HAZKUNTZA-METODOA, HONAKO HAU ISOLATZEKO ERABILTZEN DA:

- 125a) *Escherichia coli*.
- 125b) *Campylobacter jejuni*.
- 125c) *Legionella* spp.
- 125d) *Salmonella* spp.

126 GRAM TINDAKETAN, GRAM MIKROORGANISMO POSITIBOEK (*Staphylococcus*, *Streptococcus*, BESTEAK BESTE), NOLAKO KOLORAZIOA DAUKATE:

- 126a) Arrosa-fuksia.
- 126b) Urdin-morea.
- 126c) Berdea.
- 126d) Gorria, eta tindaketa biziagoa esporetan.

127 ENTEROBAKTERIOEN KONTAKETARAKO, 10 g ELIKAGAI PISATZEN DIRA, ETA -1 ETA -2 DILUZIOAK PRESTATZEN DIRA. DILUZIO BAKOITZAREN 1 ml EREITEN DA SAKONTASUNEAN. -2 DILUZIOAREN PLAKA BAKARRIK IRAKURTZEN DA, ETA KONTAKETA 128 KOLONIA TIPIKOKOA DA. BI ZIFRA ADIERAZGARRIEKIN ADIERAZTEN DEN EMAITZA HAU IZANGO DA:

- 127a) $12,9 \times 10^2$.
- 127b) 13×10^2 .
- 127c) $1,3 \times 10^3$.
- 127d) $1,3 \times 10^4$.

128 MIKROORGANISMO BAT AZTERTZEKO KONTROL-LABORATEGI BATEAN ERABILTZEN DEN DENBORA ERREALEKO PCR TEKNIKA, ZERTAN DATZA?

- 128a) Kasuan kasuko mikroorganismoan dauden antigorputzak detektatzean.
- 128b) Kasuan kasuko mikroorganismoaren DNA sekuentzia bat detektatzean.
- 128c) Kasuan kasuko mikroorganismoaren antigeno flagelarra detektatzean.
- 128d) Kasuan kasuko mikroorganismoaren pareta zelularraren lipoproteinen kontaktetan.

129 MIKROORGANISMO MESOFILOEN KONTAKETAK, ZERTARAKO BALIO DU?

- 129a) Uretan eta elikagaietan dauden germen patogenoen kopurua determinatzeko.
- 129b) Kutsadura fekala adierazten duten mikroorganismoak determinatzeko.
- 129c) Hazkunde lasterreko mikrobio-flora zenbateteko.
- 129d) Guztizko flora zenbateteko, germen motarik zehaztu gabe.

130 *Salmonella enteritidis*-EN KOLONIA TIPIKOEK HONAKO EZAUGARRI HAUEK DAUZKATE XILOSA-LISINA-DESOXIKOLATO AGAR INGURUNEAN:

- 130a) Urdinak, xilosa hartitzen dutelako eta adierazlea ez delako kolorez aldatzen.
- 130b) Erdia gorrixka eta alde urdin bat, adierazlea ez delako kolorez aldatzen.
- 130c) Erdia beltza eta alde gorrixka bat, adierazlearen kolore-aldaketagatik.
- 130d) Erdia urdina eta alde gorri bat, adierazlearen kolore-aldaketagatik.

131 KOLIFORME ETA *E.coli* KONTAKETARAKO ERABILTZEN DIREN AGAR INGURUNE KROMOGEMIOAK ENTZIMA HONEN EBIDENTZIAN DAUDE OINARRITUTA:

- 131a) β galaktosidasa eta β -D glukuronidasa entzima.
- 131b) β galaktosidasa eta hexosaminidasa entzima.
- 131c) β -D galaktosidasa eta katalasa entzima.
- 131d) α -glukuronidasa eta oxidasa entzima.

132 *Legionella pneumophila* HAZIA IZATEKO GAI DEN MIKROORGANISMO BAT DA:

- 132a) Aerobiosiko odol agarraren gainean.
- 132b) Ikatz aktibo, legamia-erazkin eta L-zisteina agarraren gainean.
- 132c) Anaerobiosiko odol agarraren gainean.
- 132d) Aerobiosian 37°C-tan inkubatutako edozein inguruetan.

133 ELIKAGAIETAN *E.coli* O:157 DETEKTATZEKO METODO NORMALIZATUAK HAU EGITEA HARTZEN DU:

- 133a) Iragazpen bidezko kontzentrazioa, aberaste-inguruneko inkubazioaren ondoren.
- 133b) Isolatutako mikroorganismoaren mikroskopio bidezko behaketa.
- 133c) Banaketa eta kontzentrazio immunomagnetikoa, aberaste-aldiaren ondoren.
- 133d) Sorbitol kolonia positiboaren egiaztapena, katalasaren bitartez.

- 134 ELIKAGAIETAN, NOLA EGIN DAITEKE TOXINA ESTAFILOKOZIKOAREN DETEKZIOA?**
- 134a) Hazkuntzaz, nobobiozinadun rappaport (RS) ingurune erdisolidoan 37°C-tan inkubatu ondoren.
- 134b) Mikroskopia bidezko behaketaz, esporak berde malakitaz tindatu ondoren.
- 134c) Mikroskopia bidezko behaketaz, GRAM tindaketaren bitartez.
- 134d) Entzimoimmunoentseguz.
- 135 BANAKETAKO BILTEGI BATEAN, LAGIN OFIZIAL BAT BILTZEN DA, GALKORRA EZ DEN ELIKAGAI BATEAN KUTSATZAILE BATEN KONTROLA EGITEKO. NOLA BANATZEN DIRA LAGINAREN HIRU ALEAK?**
- 135a) Ikuskatzailea arduratuko da laginaren hiru aleez, eta haietako bat fabrikatzailearen eskueran jarriko du, analisi kontraesanezkoa egiteko.
- 135b) Ikuskatzailea arduratuko da laginaren bi aleez, eta hirugarrena establezimenduan utziko du, analisi erabakigarria egiteko.
- 135c) Laginaren bi ale establezimenduan utziko dira, analisi kontraesanezkoa eta analisi erabakigarria egiteko.
- 135d) Laginaren aleetako bat edo bi establezimenduan utziko dira, kutsatzaile mota zein den.
- 136 KLORUZ DESINFEKTATUTAKO URAREN KALITATE MIKROBIOLOGIKOA EBALUATZEKO, ZER BALDINTZA BETE BEHAR DITUZTE LAGINA BILTZEN DEN ONTZIEK?**
- 136a) Autoklabeko esterilizaziotik pasarazi behar dira, bero lehor bidezko hasierako esterilizazioaren ondoren, gutxienez ordu batekoa izango baita.
- 136b) Agente erreduzitzaile bat erantsi behar zaie, hala nola sodio-tiosulfatoa, esterilizatu aurretik.
- 136c) Agente oxidatzaile bat erantsi behar zaie, kloroak mikroorganismoen gainean duen ekintza gutxiagotzeko.
- 136d) Desinfektatzaile batekin tratatuak izan behar dira, hala nola etanola, esterilizazioaren ondoren.
- 137 ETXEKO UR BEROAREN SAREAN *Legionella* BAKTERIOA ISOLATZEKO LAGINAK BILTZEKO, HONAKO PROZEDURA HAU ERABILTZEN DA:**
- 137a) Ura isurtzen uzten da minutu batean; litro bat ur jasotzen da, eta ondoren txorrota arraspatzen da, ontziari txertatzen zaion torunda baten bidez.
- 137b) Txorrotaren hasierako arraspatzea egiten da ontziari txertatzen zaion torunda baten bidez, eta litro bat urez betetzen da.
- 137c) Ura isurtzen uzten da gehienezko tenperatura iristen duen arte; txorrota ontziari txertatzen zaion torunda baten bidez arraspatzen da, eta bolumena osatzen da, litro bat ur arte.
- 137d) Hasiera batean 100 bat ml ur jasotzen dira; txorrota ontziari txertatzen zaion torunda baten bidez arraspatzen da, eta bolumena osatzen da, litro bat ur arte, arraspatzearen hondakinak arrastatuz.

138 HONAKO KONPOSATU HAUETATIK, ZEINENTZAT EZ DA ARGITARATU LAGIN-BILKETAKO ERREGELAMENDU ESPEZIFIKORIK, ELIKAGAIETAN DUTEN KONTROLAREN INGURUAN?

- 138a) Bentzopirenoa.
- 138b) Eztainu ez-organikoa.
- 138c) Kromo hexabalentea.
- 138d) A okratoxina.

139 AIREKO BERUNAREN DETERMINAZIORAKO LAGINA BILTZERAKOAN, AIRE-BOLUMEN JAKIN BAT PASARAZTEN DA HEMENDIK:

- 139a) Silize-geleko beirazko hodi batetik.
- 139b) Teflonezko iragazki batetik.
- 139c) Difusio bidezko lagin-hargailu batetik.
- 139d) Zelulosa-esterrezko iragazki batetik.

140 AIREKO ESTERREN (METILO- ETA ETILO-AZETATOA) DETERMINAZIORAKO LAGINA BILTZERAKOAN, AIRE-BOLUMEN JAKIN BAT PASARAZTEN DA HEMENDIK:

- 140a) PVCzko iragazki batetik.
- 140b) Anasorbezko iragazki batetik.
- 140c) lkatz aktiboko beirazko hodi batetik.
- 140d) Silize-geleko beirazko hodi batetik.

141 GIZA KONTSUMORA BIDERATUTAKO URETAN TRIHALOMETANOEN GUZTIZKO PRESENTZIA MAXIMOA ERREGELAMENDUZ EZARRITA DAGO. HONAKO KONPOSATU HAUETATIK, ZEIN DAGOKIO TALDE HORRI?

- 141a) Tetrakloroetanoa.
- 141b) 1,2-dikloroetanoa.
- 141c) Bentzo(a)pirenoa.
- 141d) Bromodiklorometanoa.

142 GIZA KONTSUMOKO URAREN EKOIZPENERAKO BIDERATZEN DEN URAREN TRATAMENDURAKO ERABILTZEN DIREN SUBSTANTZIEN ARTEAN (SAS/1915/2009 AGINDUA), AZIDO FOSFORIKOA DAGO. ZEIN DA HORREN FUNTZIO NAGUSIA?

- 142a) Korrosioaren inhibitzailea.
- 142b) Erretxina-birsortzailea.
- 142c) pH-aren zuzentzailea.
- 142d) Agente erreduzitzailea.

- 143 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EDATEKO URA KONTROLATZEKO ETA ZAINTEKO SAREAREN BARRUAN, HONAKO FUNTZIO HAUETATIK, ZEIN DAGOKIO ERKIDEGOKO ZENTROARI?**
- 143a) Ura biltzeko guneak eta instalazioak kontrolatzea, bai eta bilketen egoera ere.
 143b) Eskualdeko kontrol- eta zaintza-unitateek egindako zaintza-programak ebaluatzea.
 143c) Irizpideak zehaztea EAEn edateko uraren zaintza-programetarako.
 143d) Sareko informazio-sistemara bidaltzea uraren kalitateari buruzko emaitzak nahiz urez hornitzeko sistemen ezaugarriari buruzko informazioa.
- 144 NOIZ DA BEHARREZKO GUTXIENEZ BILKETAKO URAREN ALDEZ AURREKO IRAGAZPENA EGITEA, UR HORI DESINFEKTATU ETA BIZTANLERIARI BANATU AURRETIK?**
- 144a) Bildutako urak Formazinako Unitate Nefelometriko (UNF) 1etik gorako uhertasuna duenean urteko batez besteko moduan.
 144b) Bildutako urak 1 UNFtik gorako uhertasuna duenean hilabeteko tartearekin egiten diren bi neurketatan.
 144c) Bildutako urak 1 UNFtik gorako uhertasuna eta litroko *E. coli*ren Kolonien Unitate Eratzaile 2 baino gehiago dituenean ondoz ondoko bi egunetan.
 144d) Bildutako urak 2 UNFtik gorako uhertasuna eta litroko *E. coli*ren Kolonien Unitate Eratzaile 2 baino gehiago dituenean 15 eguneko tartearekin egiten diren bi neurketatan.
- 145 HONDARTZETAKO UREN LAGIN-BILKETA, AHAL DEN NEURRIAN, HONELA EGINGO DA:**
- 145a) Ertzetik 3 metrora eta sakonera txikiko uretan (ez da izango 50 cm-tik gorakoa).
 145b) 30 cm uraren gainazalaren azpitik eta sakonera handiko uretan (ez da izango 1 metrotik beherakoa).
 145c) Uraren azaleko geruzan eta sakonera handiko uretan (ez da izango 3 m-tik beherakoa).
 145d) 1 metro uraren gainazalaren azpitik eta sakonera handiko uretan (ez da izango 5 metrotik beherakoa).
- 146 KOSTALDEKO BAINATZEKO UREN LAGIN BAT BILDU ONDOREN, ARGITIK BABESTUTA EGOTEAZ GAIN, BILTEGIRATZEKO ETA GARRAIOKO ZER BESTE BALDINTZA BETE BEHAR DIRA LAGIN HORI LABORATEGIRA ERAMATEKO BIDEAN, NAHITAEZKO PARAMETROEN ANALISIA EGITEKO?**
- 146a) Tenperatura gutxi gorabehera 4°C-koa izango da.
 146b) Tenperatura ingurumenekoa izan ahal izango da, analisisa ez bada atzeratuko 8 orduetik gora.
 146c) Izoztu egin behar da, analisisa 48 orduetik gora atzeratuko bada.
 146d) Izoztu egin behar da, bakarrik analisisa 72 orduetik gora atzeratuko bada.

147 NOR ARDURATZEN DA IGERILEKUEN OSASUN- ETA SEGURTASUN-BALDINTZAK ZAINTEAZ?

- 147a) Kasuan kasuko osasun-agintaritza; EA Eren kasuan, Osasun Publikoko Zuzendaritza, osasun publikoko teknikarien bidez.
- 147b) Igerilekuen titularrak, autokontrolako programen bidez.
- 147c) Kasuan kasuko toki-erakundea, eskuarki instalazioa kokatuta dagoen udala, nahiz eta beren eginbeharra kasuan kasuko eskualdeko osasun publikoko teknikariengan eskuordetu dezakeen.
- 147d) Arduradun dira bai igerilekuen titularrak bai haien kokatzen diren toki-erakundeak, nor bere eskuduntzekin.

148 HONAKO INSTALAZIO HAUETATIK, ZEIN SAILKATZEN DA *Legionella* UGALTZEKO ETA ZABALTZEKO ARRISKU HANDIENA DUTEN INSTALAZIOEN ARTEAN?

- 148a) Akumuladorea eta itzulera-zirkuitua duten etxeko ur beroko sistemak.
- 148b) Iturri apaingarriak.
- 148c) Hiri-ingurunekeo aspertsiozko ureztapen-sistemak.
- 148d) Giza kontsumorako ur hotzaren barne-instalazioko sistemak.

149 HOZTEKO DORRE BATEAN *Legionella* BAKTERIOA DETEKTATU ONDOREN (10.000 UFC/l-TIK GORA) GARBIKETA BAT ETA TALKAZKO DESINFEKZIO-TRATAMENDU BAT EGITEN DIRA. NOIZ HARTU BEHAR DA LAGIN BERRI BAT TRATAMENDU HORREN ERAGINKORTASUNA BALIOESTEKO?

- 149a) Tratamendua amaitu eta handik hiru ordura.
- 149b) Zirkuituko uraren birzirkulazioa lehenagoraten denetik 24 ordu igarotzen direnean.
- 149c) Tratamendutik bi hilabetera.
- 149d) Tratamendutik 15 egunera.

150 ZER INFORMAZIO ERANTSI BEHAR ZAIO BETI ETXEKO UR BEROKO SAREETAN *Legionella* BAKTERIOA ISOLATZEKO LAGIN-BILKETARI?

- 150a) Uraren tenperatura eta kloro askearen kantitatea.
- 150b) Uraren tenperatura eta ingurumeneko tenperatura.
- 150c) Kloro askearen eta kloro konbinatuaren kantitatea.
- 150d) Ingurumeneko tenperatura, kloro askearen eta kloro konbinatuaren kantitatea eta kloroa dosifikatzeko sistema.

151 KURBA EPIDEMIKO BATEK HAU DETERMINATZEN LAGUNTZEN DU:

- 151a) Agerraldi batek biztanleria sentikorrari bakarrik edo arriskupeko biztanleria osoari eragiten dion.
- 151b) Agerraldi bat iturri komun batetik sortarazi den edo pertsona batetik beste pertsona batera hedatu den.
- 151c) Mikroorganismo arduraduna sentikorra den beroarekin edo desinfektatzaile jakin batzuekin egiten den tratamenduaren aurrean.
- 151d) Arriskupean dagoen biztanleriak hartzen dituen elikagaien arabera agerraldia eragin duten mikroorganismoen eraso-tasa espezifikoan alderik dagoen.

152 ELIKADURA-INTOXIKAZIOKO AGERRALDI BAT ERAGITEKO GAI DIREN HONAKO MIKROORGANISMO HAUETATIK, ZEINEK ERAGITEN DU HORI TOXINA BATEN ERAKETAREN BITARTEZ?

- 152a) *Yersinia enterocolitica.*
- 152b) *Campylobacter jejuni.*
- 152c) *Shigella spp.*
- 152d) *Clostridium perfringens.*

153 HONAKO FAKTORE HAUETATIK, ZEINEK EZ DU ERAGITEN AGERRALDI EPIDEMIKO BATEN IRAUPENEAN?

- 153a) Infekzio-iturriaren arriskupean egoteko moduko pertsonen eta infektatzen hasten diren pertsonen kopuruak.
- 153b) Gaixotasunaren gutxieneko eta gehieneko inkubazio-aldiak.
- 153c) Biztanleria-azpierreku bakoitzaren eraso-tasa espezifikoak.
- 153d) Pertsona sentikorrak infekzio-iturriaren arriskupean dauden denborak.

154 ELIKAGAIAK BILTEGIRATZEKO ELIKAGAI-IZOZKETAKO BITARTEKO INDUSTRIALETAN, ESKUARKI, ZER TEMPERATURA ERABILTZEN DIRA?

- 154a) -4°Ctik -10°Cra.
- 154b) -10°Ctik -18°Cra.
- 154c) -18°Ctik -25°Cra.
- 154d) -25°Ctik beherakoak.

155 ELIKAGAI-MANIPULATZAILEEI DAGOKIENEZ, KONTROLEKO ZERBITZU OFIZIALEK HONAKO HAU EGIAZTATU BEHAR DUTE ELIKADURA-ESTABLEZIMENDU ETA - ENPRESETAN:

- 155a) Guztiek dutela elikagai-manipulatzailearen txartel ofiziala.
- 155b) Dokumentalki justifikatuta dagoela guztiek jaso dutela prestakuntza egokia elikagai-higienearen gaietan, beren lan-jardueraren arabera.
- 155c) Gutxienez 4 eta 5 taldeko langileek dutela manipulatzailearen txartela.
- 155d) APPCC sistema daukaten enpresetako langileek lortu dutela elikagai-manipulatzailearen txartela.

- 156 ELIKAGAI-MANIPULATZAILEEI PRESTAKUNTZA ESKAINTZEN DIETEN ENPRESEK:**
- 156a) Aldez aurretik jakinarazi behar dizkiote prestakuntza-ekintzak Administrazioari.
156b) Ez dute behar Administrazioaren baimenik zerbitzu hori eskaintzeko.
156c) Administrazioaren baimen bat behar dute egiaztagiriak emateko; agiri horiek formatu jakin bati lotuko zaizkio.
156d) Arlo horretan prestakuntza eskaintzeko gaitasuna duen enpresa-erregistro batean inskribatuta egon beharko dute.
- 157 ANIMALIA-ETORKIKO ELIKAGAIETARAKO TRAZABILITATEAREN ARLOAN (931/2011 BETEARAZPEN-ERREGELAMENDUA), ELIKADURA-ENPRESEN USTIATZAILEAK EZ DAUDE BEHARTUTA HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA ESKAINTZERA:**
- 157a) Elikadura-enpresen ustiatzailearen izena eta helbidea, elikagaiak nori bidaltzen zaizkion harena.
157b) Elikagaien bolumena edo kantitatea.
157c) Elikagaien ekoizpen- eta kontserbazio-metodoak.
157d) Bidaltze-data.
- 158 ASPARTAMOA DAUKATEN ELIKAGAIEN ETIKETATUAN, ZER NAHITAEZKO OHAR GEHIGARRI AGERTU BEHAR DA?**
- 158a) Fenilalanina-iturri bat dauka.
158b) Gehiegizko kontsumoak eragin lasaigarriak izan ditzake.
158c) Hipertentsioa daukaten pertsonen gehienezko kontsumoa ekidin beharko lukete.
158d) Aurreko guztiak egiazkoak dira.
- 159 ARRANTZAKO PRODUKTUEN IDENTIFIKAZIOARI BURUZKO 121/2004 ERREGE-DEKRETUAREN ARABERA, ZER INFORMAZIO EZ DA BEHARREZKOA JARTZEA AZKEN KONTSUMITZAILEARENTZAKO SOLTEKO SALMENTAN INFORMAZIO GISA ERABILTZEN DEN INFORMAZIOAN?**
- 159a) Harrapatu edo hazi den aldearen izena.
159b) Ekoizpen-metodoa.
159c) Kontserbazio-tenperatura.
159d) Aurkezpen- eta/edo tratamendu-modua.
- 160 HONAKO ATAZA HAUETATIK, ZEINTZUK EZ DAUDE LOTUTA ELIKAGAIEN ARLOKO KONTROL OFIZIALEKIN?**
- 160a) Laginketa eta analisisia.
160b) Auditoria eta begiztapena.
160c) Egiaztapena eta segurtamendua.
160d) Ikuskarpena eta zaindaritza.

161 ELIKAGAIEN ARLOKO LEGERIA BETETZEN DEN EDO EZ BEGIZTATZE ALDERA, KONTROL OFIZIALEN MAIZTASUNA ERREGULARRA IZAN BEHAR DA, BAI ETA HONAKO HAU ERE:

- 161a) Kasuan kasuko elikagaiaren kontsumoarekiko proportzionala.
- 161b) Uniformea ekoizpen-sektore bakoitzerako.
